



GSUITE ERABILTZAILAREN GIDA

NOLA SARTU GMAIL-ean?


Google barran <<gmail>> idatzi, beheko irudian bezala, eta estekan klikatu.



Lehenik eta behin, zure helbide elektronikoa idatzi: **izenaabizena@iesrekaldeberribhi.biz**




Jarraian pasahitza eskatuko dizu. Lehenengo aldiz hemen sartuz gero, 123456789 idatzi beharko duzu.




Kasu honetan, **pasahitza aldatzeko aukera** emango dizu.

Behin barruan halako itxura duena orrialdearekin topatuko zara.



Google kontu honekin **hainbat aplikazio** erabili ditzakezu. Guzti horiek hurrengo irudian adierazitako ikonoan klikatuz aurkituko dituzu:




Eskolak online jarraitzeko, **Classroom eta Meet** menperatu beharko dituzu.

NOLA SARTU CLASSROOM-en?

Classroom-era sartzeko biderik errazena hauxe da:

1. Sartu gmailean.
2. <<Aplicaciones de Google>> klikatu eta bertan aplikazioaren ikonoa topatuko duzu.



Jarraian bi bideo erantsita doaz, erabilera errazteko.

1. Classroom ikasleentzat I: Lehengo pausoak

https://www.youtube.com/watch?time_continue=92&v=KwG9lare_AI&feature=emb_logo

2. Classroom ikasleentzat II: Nola egin tareak

https://www.youtube.com/watch?time_continue=31&v=X38OUUrUIRw&feature=emb_logo



NOLA PARTE HARTU BIDEO-DEI BATEAN (MEET)?

Irakasleak bideo-dei batean parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizunean, e-mail bat helduko zaizu gmail-era. Bertan datorren estekan klikatuz bideo-deian sartu ahal izango zara.

Beraz, lehenik eta behin, gmail ireki beharko duzu!